Idiazabalgo Udala

OHIKO UDALBATZARRA

2026ko apirilaren 30.

LEKUA: Batzar Aretoa

LEHENDAKARIA: Iñaki Alberdi Iparragirre (EH BILDU)

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Iñaki Arriaran Murgiondo (EH BILDU)

Aimar Lizarazu Iztueta (EH BILDU)

José Agustín Urteaga Usandizaga (EH BILDU)

Ioana Prados Alustiza (EH BILDU)

Aitziber Aizpuru Ceberio (IZALBERRI)

Patxi Mujika Olaizola (IZALBERRI)

Mikel Mujika Romero (IZALBERRI)

BERTARATU GABEKO ZINEGOTZIAK

Eunate Elio Cemborain (EH BILDU)

Jone Ormazabal Zabaleta (EH BILDU)

Jaione Munarriz Aramendi (EH BILDU)

IDAZKARIA: Xabier Otaegi Leunda

DEIALDIA: Lehenengoa

ORDUA: Hasiera: 18:00etan

Gai zerrenda:

1.- 2026-03-26KO OSOKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Udalbatzak, aho batez, 2026-03-26ko akta onartzea erabaki du.

2.- DEKRETUEN BERRI EMATEA.

2026/196-2026/278 zenbaki bitarteko dekretuen berri eman da eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Idiazabalgo Udala

3.- FAKTUREN BERRI EMATEA.

Faktura zerrenden berri eman da eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

4.- 2025.EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.

Likidazioari buruz hitz egin eta berri eman da. Ondorengo alkatetza dekretuaren bidez onartu zen 2025.ekitaldiko likidazioa:

ALKATETZA DEKRETUA

Udal honen 2025eko aurrekontuaren likidazioari buruz idazkari-kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2025eko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINTZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2025-12-31n:		1.101.115,00
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2025-12-31n:		666.701,87
Aurrekontuko zordunak :	640.251,81	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	26.450,06	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2025-12-31n:		547.246,91
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	341.817,72	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	205.429,19	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3):		1.220.569,96
5.- Saldo kobragaitzak:		146.610,81

6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:	0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):	1.073.959,15

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	309.921,55
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-56.004,34
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	517.719,39
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	771.636,60

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	691.624,88
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	343.760,06
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	1.035.384,94

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Idiazabalen, 2026ko martxoaren 26an.
Alkatea

5.- AURREKONTU EGONKORTASUNAREN KOMUNIKAZIOA.

2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauak, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duenak, 5. artikuluan xedatzen du, aurrekontu egonkortasunaren helburua ez betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatzen bada, plan ekonomiko-finantzarioaren ordez, entitateko udalbatzarrari komunikazioa helaraziko zaiola.

Idiazabalgo Udala

Idazkari-kontuhartzaileak finantza iraunkortasunaren azterketa eta ebaluaketari buruz egindako txostenaren berri eman da, eta aurrekontu egonkortasunaren komunikazioa burutu da.

6.- ONESTEA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO 4.000 BIZTANLEETIK BEHERAKO UDALERRIETAKO UDAL ETA MANKOMUNITATEEN ARTEAN SINATU BEHARREKO HITZARMEN EREDUA, OINARRIZKO ADMINISTRAZIO-ESPEDIENTEAK ESKUA ESPEDIENTE KUDEATZAILEAN EZARTZEKO

Kontuan hartuta Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2025eko irailaren 23ko bilkuran hartutako erabakia: onestea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko 4.000 biztanletik beherako udalerrietako udal eta mankomunitateen artan sinatu beharreko Hitzarmen eredua, oinarrizko administrazio-espedienteak ESKUA espediente kudeatzailean ezartzeko.

Kontuan hartuta Hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2025ko irailaren 26an argitaratu zela.

Kontuan hartuta 2026ko apirilaren 16an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela Diputatuen Kontseiluak 2026ko martxoaren 24ko bilkuran hartutako erabakia, EsKua espediente-kudeatzailean oinarrizko administrazio-espedienteak ezartzen parte hartu ahal izateko epea irekitzen duena.

Hori guztia ikusita, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 17.1.30 artikuluan eta Toki Araubideen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, udalbatzak, aho batez, erabaki du:

Lehenengo. Onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko 4.000 biztanletik beherako udalerrietako udal eta mankomunitateen artean sinatu beharreko Hitzarmen eredua, oinarrizko administrazio-espedienteak ESKUA espediente kudeatzailean ezartzeko.

Bigarren. II. eranskineko espediente guztiak (20) ezartzea.

Hirugarren. Alkateari ahalmena ematea hitzarmena sina dezan.

Idiazabalgo Udala

Laugarren. GFAko Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako Departamentuari erabakia jakinaraztea.

7.- IDIAZABALGO BIDE PUBLIKOEN INBENTARIOAREN HASIERAKO ONARPENA.

Ingeniería Sendo, SL enpresak egindako Idiazabalgo bide publikoen inbentarioaren berri eman da. Gaiaren buruz hitz egin da.

Dokumentazioa ikusita, udalbatzak, aho batez, erabaki du:

1.- Idiazabalgo bide publikoen inbentarioari hasierako onarpena ematea.

2.-Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea hilabete balioduneko epean, dokumentua aztertzeko eta hala badagokio erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko. Dokumentua udaleko web gunean jarriko da.

8.- GALDERAK ETA ESKAERAK.

Alkateak, bezperan, hilaren 29an, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Departamentuko kideak Idiazabalera egindako bisitaren berri eman du. Herriko hainbat eraikin eta orube ikusi zituztela adierazten da eta etxebizitzaren gaiari buruz hitz egin da.

Seiak eta berrogeita hamar minutu direnean bilkura bukatu egin da.

XABIER OTAEGUI LEUNDA - 34090688L
Digitalki sinatuta norengandik: XABIER OTAEGUI LEUNDA - 34090688L
Data: 2026.05.29 07:25:01 +02'00'

ALBERDI IPARRAGUIRRE IÑAKI - 72456101Y
Digitalki sinatuta norengandik: ALBERDI IPARRAGUIRRE IÑAKI - 72456101Y
Data: 2026.05.29 12:54:47 +02'00'